

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektua aurrera atera ahal izateko materia organikoa botatzen direneko lekuak izango dira ardatza. Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden ikastetxe eta ospitaleetan pentsatu dugu. Beraz, negozio honen bitartez ukituko dugun segmentua zabalago izango da:

- Ikastetxeei dagokienez, institutu publiko eta itunpeko eskolak izango dira gure bezeroak.
 - ❖ Alde batetik, institutu publikoei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila izango da gure bezero nagusia, institutuetako garbiketaz arduratzen den esparrua hain zuzen ere. Izan ere, gure helburua gazteriaren artean birziklapena sustatzea da.
 - ❖ Itunpeko eskolei dagokienez, gure bezeroak eskolako zuzendariak izango dira, ugazabotako bat joango da haiekin hitz egitera gure produktua aurkezteko.
- Azkenik, ospitaleei dagokienez, gure bezero nagusia Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila izango da, garbiketa esparruaren zuzendaria hain zuzen ere.

Institutuek baloratuko dute ikasleengan birziklapen kultura sustatu ahal izango dutela, bide batez zentroko hondakinak murriztuz.

Ospitaleetan hainbat ekintza antolatuko dira, adibidez, zuhaitzak eta barazkiak landatzea gero gure konposta erabiliz landare horien hazkunde egokia ziurtatzeko. Zuhaitz eta barazkiok ospitale barruan dauden ume gaixoei landatuko dituzte (beti ere, bakoitzaren eskura dauden zereginak hartuta) gure eta ospitaleko lorezainen gidaritzapean. Ekintza honen bidez, ume gaixoei ospitalean dauden egonaldia arinagoa bihurtzea espero dugu.

Gure merkatu mota nitxo-merkatu mota izango da. Izan ere, bezero jakin baten beharrak ase beharko ditugu, eta harreman eta distribuzio kanalak bezero horri egokituta egongo dira.

